

ALTERITATEAREN BETEKIZUNA SUBJEKTU POETIKOA ERATZEAN MIQUEL ÀNGEL RIERAREN OBRAN

Cèlia Nadal Pasqual
Universitat Pompeu Fabra
celia.nadal@upf.edu


Aipatzeko gomendioa || NADAL PASQUAL, Cèlia (2013): "Alteritatearen betekizuna subjektu poetikoa eratzean Miquel Àngel Rieraren obran" [artikulua linean], 452°F. *Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 8, 75-92, [Konsulta data: dd/mm/aa], < http://www.452f.com/pdf/numero08/08_452f-mono-celia-nadal-pasqual-eu.pdf>

Ilustrazioa || Laura Valle

Itzulpena || Aroa Huarte

Artikulua || Jasota: 29/06/2012 | Komite zientifikoak onartuta: 01/10/2012 | Argitaratuta: 01/2013

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



Laburpena || Artikulu honetan, alteritateak, ideologia ofizial eta intersubjektiboki onartu moduan, Miquel Àngel Rieraren (Manacor, 1930 - Palma, 1996) unibertso poetikoan duen betekizuna eztabaidan jartzen da. Subjektu poetikoa eratzean, autorearen beraren diskurtsoa beste diskurtso batzuekin duen harreman dialogiko gisa agertzen da, eta beste horiek hipotestu nolabait ezkutuko eta besterenduak dira. Ni/Bestea logika dialektikoa dela-eta, enuntziatioaren subjektua ez da zalantzan jartzen. Alderantziz, gizatasuna bailitzan deskribatzen zaigunaren erreferente eredugarri izaten jarraitzen du, sendo eta tinko.

Gako-hitzak || Miquel Àngel Riera | subjektu poetikoa | alteritatea.

Summary || In this article we discuss the role of otherness in the poetic universe of Miquel Àngel Riera (Manacor, 1930-1996) taken as an official ideology that is intersubjectively accepted. In the construction of the poetic subject his own discourse is presented as a dialogical relationship with other particular discourses, which work as hypotexts more or less tacit and utterly alien to him. It is for this dialectical logic self/other that the subject of the enuntiation is not questioned, but it remains reinforced as a model of what is described as the human condition.

Keywords || Miquel Àngel Riera | poetic subject | alterity.

0. Sarrera

Artikulu honetan, Miquel Àngel Rieraren (1930-1996) poesia-lanetako subjektu lirikoaren eraikuntzaren gaiari heltzen diogu, bestearen eskusio/inklusio erlazioa abiapuntu. Hautatutako ikerketa materialak ia osorik hartzen du bere ibilbidea: *Poemes a Nai* (1955) obrarekin hasten da eta *El pis de la Badiarekin* (1992) bukatu¹. Prozedura hainbat proposamen teorikoren aplikazioan datza, tartean testua diskurtso- edo hipotestu-ehun gisa ulertzen dutenak eta ni/bestea dialektika zaharra berregin ondoren, alteritatea osagai poetiko moduan dinamika dialogiko baten barnean ezartzen dutenak². Planteamendu horiek guztiak oso lotuta daude Riera inguratu zuten poetika esperimentalen kritikarekin, Riera bera poetika horiengandik aldendu bazen ere. Kritika-esparru hori beste corpus batera aplikatzea egokia eta emankorra dela egiaztatu nahi da, corpus honek klasizismo birfundatu bat eskaintzen duen arren. Izan ere, Blai Bonet baten urraketa formalak edo Damià Huguet baten esperimentazioak erasotzen duten bitartean, Rieraren poesiak modu orekatu eta argian gizabanakoaren askatasunaz eta bere subjektibitate eztabaida ezinaren eskubideaz hitz egiten digu³.

Poetika rierarra ezaugarritzeko lehen pintzelkada gisa honakoa nabarmenduko dugu: barne adierazleak liburuz liburu ezagutu daitekeen identitate bat mantentzen du; eta, bide horretan, bere unibertso poetikoaren logika osatzen duen pentsamenduaren sistema bateratua itxuratzen du. Horrela, ekoizpen guztia elkarrekin erlacionatutako zatiz osaturiko ehun bihurtu eta zentzu globala osatzen du⁴. Nia, aldiz, enuntziatio-ahots jarrai bilakatzen da eta barnean beste diskurtso eta identitate batzuk biltzen ditu. Enuntziatioaren subjektua besteak maitatzeko beharrazatik eratzen da, horiek *beste* izateari utz diezaioten. Era berean, alteritatearekiko intsumisioagatik ere sortzen da, onartezintzat hartzen baitu; eta haren aurrean autoaldarrikatzen da, bera eta ez bestea izateko aukera ematen dion keinu baten bidez. Babes horri esker soilik, seguru asko, maitasunaren praktika aske, desalterizatzailer eta barneratzailearen bitartez jarraituko du forma hartzen.

1. Ontologia, epistemologia eta morala

1.1. Antropozentrismoari eta transzendenteari buruz

Hasiera hasieratik, bestearekin existitzearen kudeaketa konpontzeko gizatasunaren aldeko apustua egiten du; betiere gizatasuna parte hartzen duten banakoen batuketa gisa eta bere dimentsio fisikoa nabarmentzen duelarik. Hori joera antropozentriko batean ere islatzen da, teozentrismoaren aurkakotasunean.

OHARRAK

1 | Salobrek 2004an editatutako *Obra poètica completara* (1953-1993) mugatuko gara, liburu bakoitzaren azkeneko bertsioak biltzen baititu, Pere Rossellóren edizio kritikorekin batera. Era berean, gaztetako lan poetikoa alde batera utziko dugu (lan guztietan, beharbada, dokumentazio asmo batekin sartu izan da, baina Miquel Àngel Rierak ez zuen sekulan argitaratu) eta *Poemes a Nai* hartuko dugu ibilaldi poetikoaren hasierako lantzat. Jarraian *Biografia*, *La bella de l'home*, *Paràbola i clam de la cosa humana*, *Llibre de les benaventurances* eta *El pis de la badia* daude. Bertsio poetikoak eta aldizkako poemak ere alde batera utziko ditugu, arreta puntua sei liburu hauek osatzen duten bloke nagusitik harantz ez barreiatzeko. Liburu bakoitzarentzat erabiliko ditugun laburdurak honakoak dira: *PN*, *Poemes a Nai* (1965); *Bio*, *Biografia* (1974); *PI*, *Paràbola i clam de la cosa humana* (1974); *BH*, *La bella de l'home* (1979); *LiB*, *Llibre de les benaventurances* (1980), eta *PB*, *El pis de la badia* (1992). Rieraren bertso guztiak edizio horren arabera aipatuak dira hemen.

2 | Lan hau egituratzen duten erreferente teorikoak hautatzeko, laguntza handia izan da Martinezen artikulua (2007).

3 | Josep M. Llompartek hirurogeigarren hamarkadan Mallorcan bizikide diren hiru idazle-promozioz hitz egiten du: mallorcar eskolatik bizirik dirautenak edo promozio zaharra; gerrarteko idazleak edo tarteko promozioa; eta berrogeita hamargarren hamarkadan hasitako gazteak. Hala ere, kritikoa honezkero sumatu zuen gure idazlearen independentzia: «Un cas a part és el de Miquel Àngel Riera, que per l'edat hauria de figurar entre els més joves de la promoció dels cinquanta» (Llompart, 1964: 225). Hori gerora argitu zuen *Poemes*

Rosellòren aburuz, «deshumanització»-aren (hark niarentzat izate jainkotiar baten hierarkia predikatzen duen erlijio bat dakarrela-eta) ikusmoldeari proposatzen zaion alternatiba *re-ligare* hitzaren jatorrizko esanahi etimologikoa berreskuratzean datza, hau da, gizabanakoen arteko loturak mantentzea baimentzen duen hori berreskuratzean (Rosselló, 1981: 119-128)⁵. Izan ere, gizakia gainjarriko litzaiokeen ezin ukituzko transzendentzia horrek niarentzat dakarren diferentzia ez da nozio urrun horren ezereztearen bitartez kudeatzen, baizik eta bere berrerabiltze eta subertsioaren bitartez⁶. Horregatik, askotan, erlijiozko sustraiak dituen hizkera bat darabil jarduera gizatiarrak deskribatzeko, hala nola, pertsonen erlazio afektiboak: «Suprema eucaristia del paisatge / consagrat a ser entès / per mor de ser, tu i jo, de carn alhora» (*LiB*: 147). Modu honetan, gizakiaren berezko amodioa, haragizko amodioa, donesten da⁷.

Hurrengo bertsoetan, adibidez «Benaventurat, entre tots i amb un cel propi, / aquell que posseeix el cos que estima» (*LiB*: 165) bertsoan, Rierak zerua ongizatez beteriko espazio pribilegiatu gisa aurkezten du, erlijio batzuek *postmortem* atsedenerako lekua promesten duten modu berean. Compagnonek *La seconde main ou le travail de la citation* (1979) lanean proposatzen duen aipamenaren nozioaren arabera, «cel» esatea bestea aipatzea/esatea, hura ageriko egitea eta berarekiko posizioa hartzea da. Aipamena egitea, ordea, maileguz eskatzea da; eta mailegua jabetze mota bat da (niak «cel» hitza darabil, baina toki horrek beste gauza bat esan nahi du horrezkero). Poesia-mekanismoaren bigarren pausu hori Bajtinek «paraula semialiena» (1989 [1975]) deritzonaren bitartez azal daiteke. Horren oinarrian dagoen ideia da hizkuntza ez dela zentzuzko zeinuen sistema arbitrario, finko eta denotatibo hutsa, baizik eta konnotazio ideologikoa duen sistema⁸. Ez dago dudarik ni poetikoak hasieratik neutroak ez diren hitz batzuk erabiltzen dituela. Hitz horiek dimentsio kultural eta historiko erabakigarrien testuinguruetatik ateratzen dira, eta aurretiaz zein gaurkotasunez erabili dituzten eragileen askotariko asmoz janzten dira. Asmo horiek definitzen dute itxaropen-zerumuga orokorra. Han nia oldarka sartzen da eta haren engainu izaera salatzen du. Horrela helarazten du *pathosak*, eta horretan datza *egoaren* eta *alteraren* izaera agerian uzten dituen jokoak.

1.2. Konkretuari eta abstraktuari buruz

Darabilgun unibertso poetikoan, ezagutzeko eta maitatzeko aukera enpirikoki ezagungarri den gertuko banakora mugatzen da. Beste edozein alternatiba hipokrita da edota bertute gizatiar baxudun sentimendu bati dagokio. Horregatik:

Mai no escriuré el poema o pasquí gesticulant
contra el peu maleït que engruna els negres
ni tractaré de salvar les bones formes

OHARRAK

a *Nai*-ren hitzaurrean: «No va caldre a Miquel Àngel Riera lliurar-se a la modesta revolta provincial que els seus companys de promoció vam assajar» (Llompert, 1965: 5). Rossellók honela berretsi du: «no hi trobam, per exemple, els tòpics de l'exploració dels obrers ni les reflexions sobre Espanya, tan freqüents en la poesia realista» (Rosselló, 1999: 202); baina, aldi berean, ez du belaunaldi bakarrear modu finkoan sailkatzen, nahiz eta narratzaile gisa hirurogeita hamargarrenekoan sartuko lukeen (Rosselló, 1997: 46-47). Horrela bada, zaila da idazle hau sailkatzea, hainbat belaunaldi taldetan egon daitekeelako.

4 | «Cap dels meus llibres és el que en diuen un aplec. Ben al contrari, si una virtut tenen [...] és la de la seva rigorosa unitat dins la qual es respecta sempre fidelíssimament l'ordre estricte de creació dels poemes. Des de mi, me sembla clar que cada un d'ells és sempre conseqüència de l'anterior i principi generador del que segueix. Així, tota la meua obra és sempre una 'ampliació' i s'aguanta, si s'aguanta, com les pedres d'un arc antic: per l'intercanvi de forces que és resultat d'un curós arrencament sense fissures». Horra hor egilearen atariko oharra *La bellesa de l'home* liburuan (Riera, 2004 [1979]: 71). Horri buruzko beste iruzkin batzuk: «Tots els meus llibres de poesia posteriors a *Poemes a Nai* són ampliacions d'ell, formant entre tots un llibre unitari» (Busquets i Querol, 1981: 33) eta *El sistema de valors existencials, ètics i estètics en l'obra poètica de Miquel Àngel Riera* obran (Nadal, 2010: 3-4).

5 | Interpretazio hori Arbonak ere bere egiten du:

amb el gest fàcil
d'alçar el puny d'un vers
contra la guerra del Vietnam.
Sí, parlaré, vull parlar, cara a cara,
de l'home que conec, del que
encalenteix el meu paisatge de viure.
(*Bio*: 66)

Hona hemen niak gizatasunari buruz hausnartzeko duen modua, betiere gizatasuna garai oroko gizon-emakumeek partekatu duten zeratzat hartzen delarik. Gizatasun hori «home contemporani»⁹ horren kasutik abiatu daiteke soilik: «parlem d'ara mateix, parlem d'aquí, / parlau amb mi d'avui, d'aquesta vida, / d'aquesta que s'esmuny, de la que ens dol i ens rapinya» (*BH*: 79). Gizaki garaikide horren gai nagusietako bat, hain justu, gizabanakoaren mugarik gabeko askatasuna da (Dolç, 1979: 211); eta haren joera etikoetako bat, «home desconegut» hori ezagutzeko nahia:

Duent posada tota la fam de viure
per endavant,
la delícia major és aperduar-se
pels barris tristos de l'home
desconegut,
captirar-se a trescar-lo
pam a pam,
(*BH*, 82)

Ezagungarri den gizabanakoa hautatu eta zehaztu beharrekoa da. Identitate partikularrekin identifikatu ezin daitekeen masa abstraktua da. Bestela esanda, konkretua/ezagungarria/maitagarria abstraktua/ezin-ezagutua/ezin-maitatuaren antitesi moduan, gizakia versus gizateria¹⁰. Poetak ondoko modu honetan aurkezten digu: «parlam amb lletra gòtica de la humanitat», eta hori egiten dugunean ezin gara konprometitu honako honekin: «[...] que en pèl és home / unitari i concret» (*BH*: 89). Proposamena hori izatea mugatzearen beharrari buruzko gogoeta hegeliarrera hurbiltzen da: mugak abstrakzioetik salbatzen du. Handik eratortzen den dialektika izatearen eta ez-izate abstraktuaren, hau da, bestearen, artean dago (Hegel, 1979: 148-150). Horrekin guztiarekin froga dezakegu niaren eta alteritatearen arteko bizikidetzeta –biak ala biak elementu poetiko moduan hartuta– oinarri fenomenologikoa duen erlazio baten errepresentazioa dela. Interesgarria litzateke hori Ricœur, Buber edo Levinasen pentsamenduen postulatuekin konparatzea.

Gainera, termino kantiarretan esatearren, ni rieriarrak metafisika mendebaldar osoak arrastaka daraman fenomenoaren (hautemangarria eta zehatza) eta noumenoaren (ideala eta abstraktua) arteko bereizketa errefusatzen du, eta dimentsio lurta eta antropozentriko batean biltzen du dena. Beren ezagutzametodoa errealitate posible bakarria bailitzan zuzentzen zaio

OHARRAK

«Per a Miquel Àngel Riera, la religió agafa el sentit etimològic de religació amb alguna cosa, sobretot amb els altres homes, i potencia així la vessant més solidària d'aquest concepte» (Arbona, 2004: 12).

6 | Vidal i Alcoverren aburuz, baliabide blai bonetarra da hau: Miquel Àngel Riera eta Jaume Santandreu Blai Bonetengandik elikatzen dira, bizizaletasun eta sentsualitatearen nahasketarengandik zein erlijio-osagaiaren birguzatzearengandik. Vidalek Joan Oliver aipatu du: «En Bonet parla sempre amb un sant Crist a la mà; però se'l treu de la bragueta». Bonet, com Riera, ens parlarà d'un erotisme i una passió que es relacionen amb el sagrat, però mai a través del misticisme: la sensualitat és i parteix de la carn» (Vidal, 1993: 195).

7 | Adibide ugari daude: «posant la mà tranquil·la dalt la biblia dels homes / jo dic i jur / solemnement i escric / que vull la flor salvatge d'una paraula teva» (*BH*: 97).

8 | Enuntziatzaileak hitzak bere egiten ditu; eta, momentu horretan, hitzen askotariko zentzuei aurre egin eta bere ideologia eratzten du (Bajtin, 1989 [1979]: 110).

9 | Vicenç Llorcak niak nahi eta nahi ez bere garaiko gizakiaz mintzatzeko duen behar hori justifikatzen du; zeren eta, bere ustez, ezagututako adibidetik abiatuta bakar-bakarrik hitz egin lezake gizateriaz (Llorca, 1995: 143).

10 | Behin eta berriz errepikatzen da pertsonak «singularment» kontuan hartzeko hobespena. Ikus ditzagun hurrengo bertsoak, non baieztatzen den gizakiak gizaki indibidual izateko kondizioa duela. Ideia hori bertsoa unitate monosilabikoetan zatitzean indartzen da:

fenomeno hautemangarriari. Planteamendu horren beraren harira, ongia ere ez dago izatetik kanpo, hautemangarriaz gaindiko nozio moduan. Haatik, subjektuaren *praxi* eta esperientziatik eratortzen da. Etika eta ezagutza estuki loturik daude logika rieriarrean. Izan ere, niak gertutik ezagutzen duen hori besterik ez duela epaituko hitz ematen du, eta pertsonak ezagutzea keinu etiko bezala ulertzen du; gizabanakoak barnean hartzen dituen keinua, eta abstraktua eta arrotza izanik anonimoa den zera hartatik salbatzen dituen.

1.3. Erlatibismoari eta absolutismoari buruz

Errealak izan ez eta idealak diren ideia abstraktuei men ez egite honetatik abiatuta, bidezkoztat jotzen da ezein arau edo dogma orokorrekin erabaki indibidualik ezeztatu ezin izana edota esperientziaren fruitu den ezein borondate erreprimitu ezin izana. Beste modu batera esanda, niak dogmaren kontrako etika praktikatzeko du, araua abstrakzioarekin identifikatzeko baitu. Edozein jarraibide orokor espekulatiboa da, egoera-tipoari besterik ez die erantzuten, gertaera erreal oro inguratzen duten espezifikotasun zein nondik norako zehatz eta errepikaezinak jaso gabe.

Horri guztiari zera gehitu behar zaio: bizitza dinamikoa da eta pentsamendua bizia eta ez-definitiboa da (Rosselló, 1982: 48). Halaber, erabaki moralak erlatiboak izango dira eta esperientziaren historikotasunari loturik egongo dira. Erlatibismoaren hausnarketa ziurtasun iraunkorren gabeziatik eratortzen da: «Tenim poques certeses: / i, amb tot això, he après / mitja grapada de mitges coses...» (PiC: 122). Huskeria horretaz aparte, beste guztia aldakorra da eta berezko ezegonkortasun horretaz jakitun da.

Beraz, zaila bihurtzen da lehen begiratuan adierazlearentzat siniste sendoak ziruditen horiez fidatzea. Hark, bere aldetik, izatearen eta salbazioaren klabe batzuk, baieztapen absolutu eta aginduzkoak, elkarbanatzen ditu gurekin teoriarik, esaterako: «[...] Estimaràs l'home singular / part damunt dels déus / i els homes plurals» (Bio: 66). Badirudi kontraesanen espiral batean sartu garela, ulertzen dugun arte erlatibismo horretaz baliatzea dela gizabanakoek mugarik gabeko askatasunez izan eta erabakitzeko duten berme bakarra; ez behin betiko erabakiak, baizik eta aldioro eta bata bestearen atzetik hartzen diren erabakiak. Egiak ezegonkortu eta zehaztasunetara eta esperientzia subjektiboaren izaera episodikora egokitzeko lasaieria komodin baten antzekoa da; eta lasaieria hori subjektuak bere buruari eta bere ziurtasunei ere aplikatzen die¹¹:

Caldria que tinguéssim sempre
obsessivament en compte, a l'estil de
tenir-ne, de tant saber-ho, una crostera
infectada, que tota referència a l'home la

OHARRAK

«[l'home té] / l'escairada i mineral condició de ser-ho / inapel·lablement / cada dia, / un / a / un, / un darrere l'altre» (BH, I, v. 35-41).

11 | Halaber, horren erakusgarri da Gabrielaren pertsonaia *Panorama amb dona* obran, baina prosaren eremuko. Errabia eta gorrotzoko egoera batetik abiatzen da. Halere, asko aldatuko da eta aurkarien zitalkeriaz jabetuko da; izan ere, aurkari herriko jendea du eta ezin da haien mailan jarri. Rossellók baloreen erlatibitatearen ulermenaren adibide gisa deskribatzen du (Rosselló, 2005: 88). Ikuspegi horri esker, senarraren heriotzaren errudunen aurkako zilegizko mendekogogoa gaintzen du. Bere sentsazioekiko leialtasunetik abiatzen da goragoko egoera batetara ailegatzeko. Egoera horrek eraginda, herritik alde egin, herritarrak arbuatu eta, harrotasunez, beste espazio batetara erretiroa hartuko du; Vinya Novara alegia, beretzako aproposa omen den lekura. Pertsonaia horrek irudikatzen duen besteekiko nagusitasuna erdiestearen kasua ni poetikoari pareka dakiok. Izan ere, biek egin dute beren bidea maitasun-esperientzian barrena, eta ulertu dute bizitzaren zentzua zertan datzan.

farem sempre, irremeiablement, en termes
relatius.
(PiC: 128)

Horrela, mota honetako baieztapenak: «Més principi tenc que el clar de no tenir-ne» (*LiB*: 160) barne-logika baten barruan azaldu behar dira. Horren arabera, erlatibismoa intuizio etikoaren gabezia ez ezik, bizitzaren esperimentaziotik eta agindu moral absolutisten kontrako neurriak hartzetik eratorritako ondorioekiko leialtasun totala¹² ere bada. Antzerako arrisku baten aurrean nia matxinatu egiten da: «Vull pecar molt i de totes les maneres, / a contrapèl de tots els manaments» (*PB*: 183). *Bekatu* eta *mandamendu* hitzen erabilerak hutsegite eta agindu kontzeptuak jasotzen dituen alteritate ideologiko baten existentzia definitzen du. Nia alteritate ideologiko horren disidente moduan eraikitzen da.

1.4. Alteritatea

Esandako guztiarengatik, transzendentzia, abstrakzioa eta absolutua alteritatearen garrantzizko osagaitzat zehaztu ditzakegu. Niak alteritatearen kontra ezberdintasun propioaren diskurtsoa inposatu nahi du. Alteritate hori oso erraz identifika dezakegu, alde batetik, diskurtso metafisiko platonikokristau batekin, guztia bitan banatu eta zeruko erreinua erreinu lurtarraren gainera jartzen duena; bestetik, katolikokontserbadorea izan litekeen moral batekin, sexualitatea eta gorputza estigmatizatzen dituen; hirugarrenez, errepresioaren eta kontrolaren balore politiko eta sozial batzuekin, frankismo eta frankismo ondoko garaiekin lotzen direnak (adibideak aurrerago ikusiko ditugu); eta azkenik, baita orokorrean bakarra eta absolutua den pentsamenduaren modelo batekin ere. Ikerketa honen asmoa ez da, ordea, literaturaz kanpoko eremuan korrelazioak menturatzea. Haatik, niak, alteritate horren aurrean, alternatiba bat aldarrikatzen duela interesatzen zaigu hemen. Alteritate hori intersubjektiboki onartzen da (niak mugiarazi nahi lukeen erdigune hipotetiko bat okupatzen du) eta zeharkako hiru fronte dauzka: gizatiarra, zeren eta gizabanakoa abstrakzioaren barnean galdu daiteke, erakusten den filantropia gorabehera: «[l'home] quan deixa de tenir un nom propi i es converteix en un corpuscle inserit dins la gran massa es converteix en una bèstia perillosa proveïda d'una infinita capacitat de fer mal» (Busquets i Querol, 1981: 32); metafisikoa, entelekiaren izenean gizakiaren autonomia eta erresponsabilitatea urritzen baitira: «precisament perquè és home se sent impulsat a elevar la seva condició sobre la de qualsevol possibilitat metafísica o teològica» (Rosselló, 1982: 26); eta epistemologiko eta moral, gizatasunarentzako erlatibismo moral bati jarraitzen diona – izan ere, erlatibismo hori ezeztatzeak ustezko ideia garbi eta berezkoaren zein harengandik eratorritako balore moral posibleen absolutismora leramake–. Laburbilduz, ezaugarri horiek batzen

OHARRAK

12 | Rierak Jaume Santandreu aipatzen du: «Crec que els tractats de moral i altres herbes / són els invents dels coixos / perquè els altres no corrin». Rieraren gogoeta poetikoan, diskurtsoa hausturazkoa da, kode moralaren ideiarekiko haustura eragiten baitu: «I és que aquí ja no hi ha tractats que hi valguin. Cal anar directe cap a l'home, per alliberar-li la persona urgentment [...]. Quin aire fresc, Jaume. Quin posat de llunyania el teu, enfront d'aquell terrible, cruelíssim catolicisme que, de petits, tan ocupat estava desxifrant, dent a dent, tota la maquinària del temor, que no li quedava temps per a parlar-nos prou de l'home» (Riera, 1970: 5-8).

dituen edozein ideologia niarentzako arrotza izango da, nia baita, bere aburuz, gizatasuna osatzen duen hori erdiesteko moduaren gradurik altuena erakusten duen gizakiaren modeloa. Ondoren ikusiko dugun bezalaxe, analisia diskurtsoaren (ni/zu pertsonak) eta historiaren (hirugarrentasun) arteko tentsio bezala formula daiteke, Benevisteren terminoetan. Esan beharrik ez dago, kasu honetan, historia edo testuinguru poetikokognitibo bateko diskurtso literario bati buruz ari garela. Diskurtso hori deskribatu berri dugun alteritate horretan datza eta alteritatearekiko harremanei esker finkatzen den niaz elementu poetiko gisa hitz egiten digu.

2. Pertsona-izenordeak

Que ningú no digui «l'altre» a un altre.
Que ningú no digui «jo» al seu nom.
(Blai Bonet, «GASPAR HAUSER. núm. 2»)

2.1. Zu izenordeari eta ez-pertsonari buruz

Alter den hura, beraz, ideologia manipulazaila bat zabaltzen dutenen ahotan jarritako diskurtso bat da eta gizabanakoa askatasunez aritzearen kontra egiten du. Diskurtso hori hedatzen duten pertsonak, otso hobbestarraren gizatasunik gabeko egoeran daudenak eta niak atzean uzten dituenak, hura/haiek izena hartzen dute; zuzeneko diskurtsorik ez duen hirugarren pertsona, ez-pertsona (Benevista, 1966), alegia. Aho betean esanda, alteritatea da gizagabetzen duen hura, gizakiari gizaki izatea eragozten diona. Hala, aurkari ideologikoa den heinean, buruzagiek eta mota guztietako manipulazailaiek erabiltzen dute, horiek norberaren autogobernuaren muga gainditu eta besteen garapen pertsonalerako aukeren kontra egiten dutenean:

No cal fer l'esforç
de voler,
ni pensar,
ni sentir:
ells ho fan en nom nostre.
(*PiC*: 120)

Halaber, murrizketa horretan «[...] aquells que han admès l'ofici / tan assenyalat / de conrear el prohibir» (*PiC*: 120) dira. Nolanahi ere, buruzagitza ideologiko eta arauemailearen gehiegikeriaren arazoa delako doktrina egia bakar moduan aurkeztean datza: «amb l'arrogància infinita del que està i es veu / tan segur del seu gest com de la data exacta / de naixença de la Veritat: la pròpia» (*PiC*: 119). Horregatik, nia aldendu egiten da:

Des d'aquest coster t'estim, no d'altra banda,
no des dels bancs amb respatller de les esglésies
reservats per a uns homes esveltíssims
que Déu supòs que estima més,
vora la cadira del cacic, des de la qual

OHARRAK

13 | El dialogisme és la noció bakhtiniana antònima del monologisme. Implica construir el discurs poètic en contínua interacció amb els discursos aliens (Bajtín, 1989 [1979]: 279).

ens quadriculen la fe i la fam amb un tira-ratlles
(*PiC*: 120)

Urruntze horretan, baina, niak nabarmen erabiltzen du alteritatea bere burua kokatzeko erreferentzia puntu gisa. Nia non ez den zehazten duen deskribapen apofatikoak niaren ideologiaren eta, haren ustez, alteritatearena den ideologiaren arteko dialogismoa ekarriko luke¹³. Era berean, niak erreferente positibo bat dauka: amodio librearen bizipen propioa (batez ere Nairekin), ezberdintasunaren ideologiaren kontrako adibide. Hona: «no comprenc ni de lluny / el secular anatema contra la carn, / la rara paradoxa dels gaudis anomenats prohibits, / la catalogació jeràrquica de les innobleses de la carn» (*BH*: 97). Argi ikusten da, berriz ere, hitzen jabetze bat jazo dela aurretiaz, egitateei balore konkretu bat ematen diena (haragia prestueza da alteritatearen ideologiaren arabera, baina niak kontrakoa dio eta adjektibo berari balio ironiko bat ematen dio). Gramatikalki, hirugarren pertsonak ezin du enuntziatu bat bere gain hartu, bere posizio naturala delokutiboa baita, hitz egiten eta entzuten ez duenarena. Halere, horrek ez du bere presentzia eragozten hipotestu moduan, zeina niak jasotzen duen eta zeinarekin hizketan jarduten duen.

Biografia (1974) obraz gero, nabarmen hedatzen da amodio-tipologia, eta maitaleen amodioaz haratago beste gertuko jendeari ere aplikatzen zaio. Naik beste gonbidatuekin elkarbanatuko du agertokia, hala-nola, familia eta lagunak: «Mumare, germà Toni, / per tots / l'amor» (*Bio*: 48). «Zu»-ak sartu dira eszenan, eta niarekin komunioan gu bihurtuko dira.

Paràbola i clam de la cosa humana (1974)¹⁴ lanean marraztu du Rierak hobekien «ni»-aren (ahots iragarlea), «zu»-aren (Nai) eta «gu»-aren (ni + zu + maite diren beste pertsona batzuk) rolen banaketa, horiek guztiak elkarren laguntzaz salba daitezkeen gizabanako batzuen talde batekoak izanik. Kategoria anibalenteago batean dago «zuek», «gu»-aren parte izan daitekeena, barne-testuinguruaren arabera. Bukatzeko, «haiek»-ak zehaztasun gehiagoz deskribatzen dira identitate alienatu gisa eta honezkero betirako ordeztuko dituzte «els noms d'aquells que sols són gent / i res tenen a veure amb els altres que ens salven» (*PB*: 212). Paratestuei dagokienez, egileak sailkapen bera erabili du *Biografia* obraren eskaintzan: «A tots quants heu assolit categoria de vosaltres, havent pogut no passar mai de just ser ells. I, entre tots, a Tu, que em tens engrunada la biografia» (*Bio*: 28).

2.2. Beste hirugarren pertsona bat

Errepertorioarekin bukatzeko, *Llibre de les Benaventurances* (1980) liburuan, alteritatea beste ikuspuntu batetik aztertzen da. Niak lehenago haiei (debekatzailleak, manipulatzailleak, etab.) aurre egin

OHARRAK

13 | Dialogismoa da monologismoaren nozio bajtinar antonimoa. Diskurtso poetikoa besteren diskurtsoekiko elkarrekintza etengabea eraikitzea dakar (Bajtín, 1989 [1979]: 279).

14 | *Paràbola i clam de la cosa humana* (1974) liburua espleziituenetarikotzat hartu da, salaketa eta errebelidiari dagokionez; nahiz eta Miquel Dolçek ohartarazten digun errebelidia Rieraren obra guztietan presente dagoela, modu batean zein bestean. Lehenbizikoa *Poemes a Nai* ezin intimoa: «el poeta, des del seu començ, esquarterava sense miraments tota una teoria de rutines, d'hàbits i de prejudicis» (Riera, 1979: 5-9). Alabaina, *PiC* obran poetak ondokoa egin du: «estableix en aquest context (els anys conflictius previs a la mort del dictador) un parèntesi necessari, més aspre i més sarcàstic en l'arrencada, per situar el protagonista en el món real i històric» eta horregatik idatzi du «fora del seu to habitual», (Díaz de Castro, 2003 [1979]: 11-24).

zien eta orain beste horiek, haiek mendean har ditzaten utzi dutenak (niak ez bezala, ez baita menderatzen utzi) defendatzen ditu. Azken horiek tradizioz besteren diskurtsoak hedatzen dituen aurreiritzien ondorioz marjinatuak izan dira, hain zuzen. Zorionekoak deritze (hitz probokatibo hori darabil) *status quo*ak gaitzetsitako ezaugarriren bat konpartitzeagatik alteritatearen eraginen biktimak izan direnei. Inork ez du kontuan hartu beren giza baliozkotasuna, ezta beren ezberdintasuna errespetatu ere. Adibide gisa, puritanismoak likits izatea leporatzen dien horiek: «Benaventurats aquells als qui trastorna / la més indefugible necessitat de tocar» (*LiB*: 158) edota gezurteroek gremioak: «Honor etern als mentiders! Embullen» (*LiB*: 163). Han alteritatea ideologia nagusi bezala definitzen da berriz ere, eta haren arabera likitsak eta gezurteroak (besteren artean) estigmatizagarriak dira. Niak haien defentsa egiten du, eta keinu berarekin onak eta gaiztoak bereizi eta orokortzen dituen ezein katalogazio forma salatzen du, zeren eta: «Jo els conec i els estim...» (*LiB*: 163). Izan ere, zuzeneko ezagutza horretatik abiatuta bakarrik epaitu daitezke: «és la gent més veraç, ho són [mentiders] per vici» (*LiB*: 163). Hala gezurteroak nola likitsak hirugarren pertsonak dira. Niak hirugarrentasun horren pean irudi bat ezartzen du eta irudi horrekin solidario da. Irudi horrek isla propio bat osa lezake niarentzat *haiek* direnen begietan, betiere kontuan hartuz beren zentralitate propioetik besteak *beste* bezala begiratzen dituztela. Erdigune eta periferien subertsio horrek pultsio barne-hartzailea, ia-ia humanitarioa, irudikatzen du. Pultsio horren subjektua prest dago aurreiritzi guztien gainetik maitagarri deritzon oro maitatzeko; era berean, bere burua iritzi orokorraren kontra dagoen erreboltarizat hartzen du.

2.3. Singularra eta pluralari buruz

Ikusi dugunez, nia harrapatuta dago maitatzeko, gizaki ezezaguna ezagutzeko, pertsonekin erkidetasunean egoteko eta diskurtso alternoa daramatenak baztertuz bere burua babesteko beharren artean. Intolerantzia hori, esan dugun moduan, niaren matxinadan gauzatzen da, bere patuaren jabea baita, nahiz eta sisifoarra izan: «Benaventurat aquell / que sempre ensopega amb la mateixa pedra» (*LiB*: 148). Izan ere, azken finean, ezin da aurrez zuzenduriko ibilbide gizatiarrik izan. Horregatik matxinatzen da nia eta ezetz dio. Camusen existentzialismoan bezala, gizabanakoaren askatasunaren defentsak zilegi egiten du gizabanakoak bere askatasunaren espazioa defendatu eta jarrera otzana matxinoarenarekin ordezkatzeko. *L'homme révolté* (Camus, 1951) liburuan bezala, bere ezetza baietza ere bada¹⁵:

Deixau-me decidir per quin pelatge
de bèstia humana
m'agrada dur eixerida l'espina

OHARRAK

15 | «Què és un home revoltat? Un home que diu no. Però si nega, no renuncia: és també un home que diu sí des del seu primer moviment. [...] el moviment de revolta es recolza, al mateix temps, en el recurs categòric d'una intrusió considerada intolerable i en la certitud confusa d'un bon dret» (Camus, 1981: 27).

i per quin almud de persona
em vull sagnar tot jo
(PiC: 108-9)

Hala baiezko batekin nola ezezkoarekin, jarrera hartu eta aurre egin behar zaio dominatzen saiatzen direnei, existentzia nahiz bizikidetzaren autogestionatzearen eskubidearekin bukatzen saiatzen direnei, alegia:

Així la veu, de cop i de per sempre,
d'una urpada feresta, deixaria un signe
indeleble, com una destrallada enmig del front,
de tots aquells que ens agafen per l'ansa
i ens arrossequen lluny
del nostre estil de ser humans de pinte en ampla
agermanats i clars, escollidors i tranquils.
(PiC: 121)

Bazirudien eskubide indibidualen aldeko borroka gogoak niaren aldarrikapenen protagonismo osoa hartua zuela. Hala ere, tribuaren izenean hitz egiten entzun berri dugu eta horretarako lehendabiziko pertsona plurala erabili du; izan ere, badira eskubide kolektiboak gizabanakoarenaz haratago, identitate kulturalaren defentsa adibidez. Kasu horretan, nia atzerritarrari zuzentzen zaio: «A cadascun de vosaltres / que, tot sovint, voleu ser terra / però no poble amb nosaltres» (PiC: 112). Eremu pribatuko kontuez aritzera eta beti berarengandik abiatuta hitz egitera ohitu gintuen ni horrek, orain, komunitate baten ordezkari bailitzan hitz egiten du. Argi dago: niaren matxinadaren erradikalismoak eskubide indibidualaren eta eskubide kolektiboaren arteko tentsioa sortu du. «Ni»-a «gu»-aren parte da, herria osatzen duten banakoen batuketa den heinean. Halere, plural horrek talde bati egiten badio erreferentzia, eta niak talde horren izenean hitz egiten badu (taldea bere diskurtso bakarraren barnean sartzen badu), taldearen identitatea abstrakzio huts bihurtu daiteke edota, agian, taldekide guztien iritzien pluraltasuna alboratu. Horrela, beste kode baten (tradizionala ez izanik ere) eramaile eta igorle gisa jokatzeko gizabanakoak duen zilegitasuna Camusek ohartarazi zuen bezala endekatu daiteke: errebeldea, behin irabazle suertatuta, zapaltzaile bihurtu daiteke. Díaz de Castroren proposamena soluzio horretatik urrun dago:

A obra sucesiva de Miquel Angel Riera (1930-1996) preséntasenos boxe como un conxunto de coherencia admirábel no que o poeta e mailo narrador obedecen a un impulso único de crear beleza na súa procura de sentidos á natureza paradóxica e fráxil dos seres humanos, á pugna contradictoria entre pensamento e corazón, entre o ser social e o ser íntimo, facetas inseparábeis da existencia de cada un. (Díaz de Castro, 2002: 9)

PiC obraren lehenengo poemetatik hasita aukera sorta guztia dakusagu hedaturik. Liburuari hasiera ematen dion piezak zera

aldarrikatzen du: «deixau-me ser qui som» (*PiC*: 109). Askatasun arduratsuz aukeratu ahal izateko eskubide pertsonalaren eskaera da: «Deixau-me que m'equivoqui jo tot sol i de per ampla / i que acuradament esculli jo el lloc perfecte / on engrunar-me els dits i l'ull del créixer» (*PiC*: 108). Il poema honela hasten da: «També vosaltres, / prohoms, potser déus, que teniu a cura / el regiment de la cosa pública» (*PiC*: 110). Berriro ere eskatzen du den bezalakoa izaten utz diezaioten, oraingoan maila intimoaz haratago maila publikoago eta politikoago batean. Bestetik, bere ustezko autoritatea zalantzan ipintzen du eta horretarako nia hirugarren pertsona singularrera eramaten du. Aipatutako suharrarekin edota gezurtiarekin bezala, utz iezaiozue den bezalakoa izaten:

Però heus aquí el rebel,
l'ingrat que es palpa el cos i es destria persona
i us gosa a dir, prohoms,
que el deixeu ser com és
també vosaltres.
(*PiC*: 111)

Hirugarren piezak dio «deixau-nos ser qui som» (*PiC*: 113): komunitate kohesionatua azpimarratzen du, eta bigarren pertsona pluralak integraturik ez daudenak ordezkatzeko ditu. Zabaldut egin da: «El jo s'havia d'unir al nosaltres per aconseguir configurar-se millor com a individu amb dimensions, per ser més jo, definitivament, des de l'assumpció de la companyia dels altres» (Díaz de Castro, 2003: 14). Ideia hori laugarren poematik aurrera indartzen da, non mezu filosofikoa sofistikuatua bihurtzen den: lehenengo pertsona singularrak berriro ere «zuek» dio, baina izenorde hori, orain arte «haiek»-az ari zena, «gu»-az ari da orain. Pertsona-deixiak anbigua dirudi, baina, egia esan, zuzeneko deia delako soilik erabiltzen da «zuek». Kasu horretan, juntagailu adbertsatiboak eta adberbiozko osagarriak ahalbidetzen dute nia nori zuzentzen zaion antzematea: «però vosaltres, no, [...] deixau-me ser qui sou» (*PiC*: 114, 116). Elkarren artean integratzen dira hasierako diskurtsoan niaren parte ez zen hori («deixau-me ser qui som») eta gero halanola gehitu den hori. Egitate hori, horratik, ez da konpontzen niaren periferiatik erdiguneranzko mugimenduaren susmoarekin soilik. Haatik, kontaktua erradikalizatzeko modu bat da, pertsonen arteko kontaminazio antzeko bat bihurtzen den arte, bata bestearengan ematen den errekonozimendu eta onarpena den horren isuraldatzea, alegia. Aitzindua zuen:

Us cerc i em trob a mi.
la condició
meva
fa grau
de vosaltres
(*Bio*: 55)

«Zuek» horien bidez niaren identitatea aberasten duen iragazkortasunak ni/bestea dialektika disolbatu delako susmoa piztu dezake, gizabanakoa definitzen duten mugen ezereztearekin batera. Halere, halako elkar ulertzea pertsona zehatz eta «limitades»-en artean bakarrik eman daiteke. Horrexegatik, subjektuaren kontzeptuak sendotasunari eusten dio eta ez da arrazoimenaren oinarrian egonkor dagoen ideia bat izateari uzteko bezainbeste likidotzen. Izan ere, aurreratu genuen bezala, niak inklusioaren artea eskusioarena bezainbat jorratzen du: «No vull ser més com sou, una desgràcia / d'homúnculs desinflatats i reticents» (*PB*: 183). Beharrezkoa da gogoratzea niaren independentzia baldintza bat dela, eta nia «besteren-haiek» haiekiko desadostasunez adierazten ikusi dugun arren, ez duela onartzen kritikatu izatea. Horrekin guztiarekin, badirudi *bestea* maitatzeko norberak den bezalakoa izan behar duela: «La humanitat i jo som una sola cosa. Però la conec i l'entenc des de mi, necessàriament. Per tant, si la vull servir hauré de recórrer a servir-me a mi mateix» (Rosselló, 1982: 279). Eta pentsamendu poetikotik bertora: «No us podré servir si no em serviu / deixant-me ser qui som» (*PiC*: 107).

3. Ondorioak

Rieraren mundu literarioan bestearen papera garrantzizkoa da, zeren eta niak deskribatu, defendatu eta bere buruaren adibidearen bidez azaltzen duen gizatasunaren ikuspegi hori motibatzen duena ordezkaten du. Izan ere, alteritate gizakiak bere gain hartu ezin dituen ideiez osatutako diskurtsoa da, hau da, niaren kontrako eraso izan gabe niak bere egin ezin dituen ideiei multzoa (jainko sortzailearen ideia, moral unibertsalarena, egia absolutuena, etab.). Horren aurrean, niak ezberdintasunaren ideologia ordezkaten du: esperientzian, gorputzean eta gizabanako konkretu, libre, historiko eta ezegonkorrean oinarritutako munduaren ezagutza (azken finean, gizakiari gizaki gisa salbatzeko bidea irekiko liokeen hori guztia), ariketa etiko propio eta aberasgarri honen bidez: «[el] desesperat amor per la carn humana» (*Bio*: 50).

Ikusi dugun bezala, alteritate horren funtzionamenduak bi puntu finkatzen ditu. Batetik, ahots disidente eta periferikodun niaren enuntziatua ematen den egoera poetikoan menderatzailea eta eratzzailea da alteritate hori. Bestetik, hedatzen duen gizagabetzea ez-pertsonak helarazitakoa izanen da. Hala, ez-pertsonak dira, besteak beste: «polític malgirbat d'espínada», «jutge compromès», eta «guaita el món des d'un balcó d'argent» (*Bio*: 39) egiten duen kalonjea.

Lehenengo puntuari dagokionez, hau da, erdiguneko eta periferiako rolen arteko erlazioari dagokionez, nia bazterrean kokatutako

errebeldea izateak eta, batzuetan, predikatzaile tonua hartu edo kolektibo baten izenean hitz egiteak haustura poetiken potentzialtasun klasikoa susmatzera garamatza, bazterretik erdiguneranzko desplazamendua egitera, alegia.

Hain zuzen, Díaz de Castro gu hartaz lagunartean niago izateko modu gisa mintzatu denean, ez zirudien niak, talde baten parte sentitzean, pluralean hitz egin beharraren arazo filosofikoa konpontzen zenik. Horrek hainbat ahots batean biltzera eta hori erreferente bihurtzera darama: zentralitate gehiagoko egoera baterako pausua, atxikimenduaren bidez. Badira bi argumentu poetiko inkongruentzia hori biguntzen dutenak. Batetik, erlatibismoa. Niak ohartarazten gaitu erlatibismo horri jarraiki interpretatu behar dugula, eta horrexek azaltzen dituela kontraesanak. Bestetik, identitateen kontaminazio originala. Horrek oso modu berezian konbinatzen ditu singularra eta plurala: «cop en sec comprenem / que la contemplació d'aquella criatura ens ha fet un empelt, / que la seva permanència en nosaltres és ja irreversible» (PB: 193-4)¹⁶. Eta, paradoxaz, «l'acte de posar / la primera pedra de ser jo mateix» (PiC: 115) egiteko, mugak zeharkatzeko modukoak bihurtzea garrantzitsua da. Gizabanakoen parte hartze horri esker –ez borondate orokortzaileari esker– hitz egin daiteke pluralean.

Maitasunarengatik berriro ere bere tokia hartzeak (*re-ligare*) bigarren puntura garamatza: niak filantropia asaldatua (gizakiaren onarpena, nahiz eta berezkotasun erlatiboa izan: orain aingeru, orain otso) eta ez-pertsonen duten gizabanakoaren gizagabetzearekiko intolerantzia konbinatzen ditu. Tentsio horren arabera, bestearekiko harremana niaren amodio eta arbuioaz osatutako mugimendu dinamiko eta konplexu batean oinarrituko da: «Ja sé que us necessit, però deixau-me / tota per a mi la tasca de desentotsolar-me» (PiC: 108). Biak ala biak niaren eta ez-niaren arteko erlazioak ulertzeko modu originalak dira.

Molde inklusiboari dagokionez, pertsonen buruz ari bagara alteritatea erlatiboa da; nia eta bestea maitatzeko gai direnean, beren arteko mugak gainezar baitaitezke. Naik, adibidez, zu enuntziatzaile kideak, nia baieztatu eta hedatzen du: «Quan el contagi teu em deixi blava / la carn del meu fervor, i la meva vida / feta un per-mor-de-tu, ben tuejada...» (PN: 24).

Molde eksklusiboari dagokionez, diskurtso dialogiko bat ekartzen du alteritate menderaezinarekin, hori ideologia menderatzailea den heinean. Niak itzuri egin gabe defenditzen du bere burua eta diskurtso propioa sustatzeko berrerabiltzen du alteritatea. Paradigma intertestual baten arabera (Kristeva, 1969), esan dezakegu alteritateak elementu poetiko gisa funtzionatzen duela. Hain zuzen, niaren gogoaren artifizioan dagoen beste guztien gaineko hipotestu

OHARRAK

16 | Adibide gehiago: «heus aquí un home / que de sobte té un ressò / i ens mira, / ens mira i ens veu, / i comença / a fugir d'ell cap a nosaltres» (Bio, V, v. 52-57), eta: «Que aquest cos que tu ets sigui jo sense perdre / ni l'aire de distant ni el to de ser distint, / em fa sentir molt viu...» (Bio, V, v. 13-15).

gisa funtzionatzen du eta bere burua salatzen du ahotsak harilkatzen dituen sare testualean. Hipotestua nabarmentzeko estrategiak askotarikoak dira. Hasteko, enuntziatuan besteren enuntziatuak azpimarratzea eta salatzea; baina baita besteren hitzaren jabe egin eta birsemantizatzea ere. Horrek binomioak mantendu beharra dakar. Adibidez, *homos/theos* binomioan asmoa ez da hierarkiak ezabatzea: niak jainkoaren fedea eta supremazia ordezkatzeko ditu, baina gizakiaren fede eta supremazia batekin betiere. Bikotea ez da ezereztan, irauli baizik. Ukitu ezineko diskurtsoaren karga ideologikoak gizakia ipintzen du goi-goian. Bataren eta bestearen osagaiak kutsatu egiten dira (gizakiak ezaugarri jainkotiarrek bereganatzen ditu) eta jainkoaren tradiziozko ikusmoldeak, niaren hitzetan, mende hartu beharreko eta izen ona galdutako entitate lege bizirauten du, osotara besteratua.

Beste binomio interesgarri bat konkretua eta abstraktua aurrez aurre jartzen dituen da. Gizakiari aplikatuz gero, gizabanako/gizateria gisa itzuliko litzateke. Orduan, bada, nolatan jo daiteke asmo txarrekotzat «humanitat» hitzaren erabilera (gizateriaz orokorrean hitz egitea, «d'estimar-la i, al damunt, fer-ne bandera / és un terrible estil / de no passar comptes amb l'home» (*BH*: 87)) eta, aldiz, «condició humana» adierazpidea lasaitasun osoz erabili? Rossellók posizionamendu horren problematikari erreparatzen dio, eta ohartarazten du niak abstrakzioen kontra dagoela dioela eta, aldi berean, ezin duela kontzeptu orokorren erabilera ekidin bere adierazpenean (Rosselló, 1982: 32)¹⁷. Badira indukzio bidezko soluzioa proposatu duten kritikoak: «el crit de la condició humana no es fa des de l'abstracció especulativa, sinó des d'una concreció històrica finalment estilitzada» (Llorca, 1995: 15). Estilizazio horrek, ordea, erradikalki behin behinekoa lirudike; izan ere, edozein ziurtasunek halabeharrez une batekoa eta igarokorra behar luke. Rieraren erlatibismoaren erradikalismo subertsiboak nia dedukziozkoa izan ezin dadin eragiten du, ezin baitu ezein premisa unibertsal gauza zehatzen gainean ezarri; baina indukziozkoa ezta ere, ez baitu nahi gauza zehatzetatik printzipio orokorrik estrapolatu ezta bere doktrina propiotik ere; eta horregatik da garrantzitsua bere buruari ezarritako erlatibismoa. Rierak erlatibismoarako Bajtinek dialogismoarako aldarrikatzen zuen hura aldarrikatzen du: egia absolutu baten ezinezkotasuna (Todorov, 1984: 86-87), alegia. Itxurazko soluziorik eza, hain zuzen, ez da nihilismo ezkor bat, baizik eta gizakia horrelaxe, den bezala (niak badela dioen bezala) onartzea. Berrero ere, alteritatea ez da suntsitzen, baizik eta ideologikoki gutxiagotu egiten da, kritikatu eta kontraproposamen bat aldarrikatzeko erabili.

Horregatik guztiagatik, esan dezakegu niaren kontzientzia beste proposamen antitetiko batzuekin alderatuz eratzen dela: nia erlatibista, zehatza, mundutarra, gorpuzduna, askea eta errebeldea da, alteritatea absolutista, abstraktua, trazedentea, orokortzaile,

OHARRAK

17 | Rierak kontu hori jorratzen du, eta azaltzen du ezen «el sentido de la convivencia establece lógicamente unos puntos de referencia porque el hombre siempre tiende a dimensionar actitudes y convertirlas en mitos a fin de estrapolarlas de su vida cotidiana y que le sirvan como punto de referencia» (Llorca, 1990).

dominatzailea eta dominantea delako. Nia eta bestea aurrez aurre jartzen dituen dialektika zaharrak oraindik ere funtzionatzen du horrelako kasu batean, non subjektu-substantziaren figurak irmo eta indartsu dirauen.

Rieraren poesia-ekoizpenak batere esperimentatzailea ez den molde klasizista bat aurkezten du eta ez du Europak XX. mendearen bigarren erdian eskaintzen zituen kritika-estrategiarik erakusten; halere, hipertestualitatea, aipua, dialogismoa, begirada dialektikoa edota fenomenologia bezalako kontzeptu teorikoekin barrendu daiteke. Kategoria horiek ekosistema poetiko beraren menpeko dira, eta modu desorekatuan dauden ekosistema hartako diskurtsoei buruzko analisisian sakontzen laguntzen digute. Izan ere, niak alteritate behar du bere gogoaren testuinguruaren parte bezala, eta baita beretu egiten duen mintzairaren agente konnotatzaile gisa ere. Behin eta berriz errepikatuko dugu, ordea, hori horrela dela, ni poetikoa ez delako inoiz osotara dekonstruitzen ez eta disolbatzen ere (gizabanakoen parte hartzearen berrikuntza ekarri eta erlatibismoa predikatzen duen arren).

Azken batean, ni poetikoa subjektu gisa deskribatzen duen barne mekanismo poetikoak batasun estrukturala mantendu egiten du, nahiz eta parte hartzen duten beste ahots batzuk barneratzen zaizkion, eta horiek osatu eta kontrajarri egiten duten. Jakina, aurkezten zaigun moduan, subjektu errebeldeak gizonezkoa, heterosexuala, egozentrikoa, puztua, sakralizatua, substantzialista eta esentziala izatera jotzen du. Subjektu postdialektiko bateranzko pausua, bestea gabe, malgua, arina eta postnartzizista, urruti dago Rieraren poetikan. Gizabanakoek izaera eta jokamolde aldakorra dutela esan ziguten arren, nia gizatasun eredu gisa aurkezten zaigu oraindik ere; eta eredu horrek ezaugarri argi eta beharrezko batzuk ditu. Ereduaren ahotsa periferiako heroi inkonformista batena da, baina bere baitan zentratua eta bere diskurtsoaren anbizio handiko erdigunean ongi errotuta dago.



Bibliografia

- ARBONA, A. (2004): *La poesia de Miquel Àngel Riera i Miquel Bauçà*, Palma de Mallorca: Lleonard Muntaner Editor.
- BAJTÍN, M. (1982 [1979]): *Estética de la creación verbal*, Mèxic: Siglo XXI.
- BAJTÍN, M. (1989 [1975]): *Teoría y estética de la novela*, Madrid: Taurus.
- BENVENISTE, É. (1966): *Problèmes de linguistique générale*, París: Gallimard.
- BUSQUETS, L. i QUEROL, C. (1981): «Miquel Àngel Riera, ressò humà i generós», *El Correo Catalán*.
- CAMUS, A. (1986): *L'home revoltat*, Joan Fuster i Josep Palacios (trad.), Barcelona: Laia.
- COMPAGNON, A. (1979): *La seconde main ou le travail de la Citation*, París: Seuil.
- DÍAZ DE CASTRO, F. (2002): «Prólogo» a Riera, M. À. (aut.), *Antoloxía poética*, Santiago de Compostela: Espiral Maior, 9-32.
- DÍAZ DE CASTRO, F. (2003 [1979]) «Pròleg» a Riera, M. À. (aut.), *Paràbola i clam de la cosa humana*, Palma de Mallorca: Consell de Mallorca, 11-24.
- DOLÇ, M. (1974): «Pròleg» a Riera, M. À. (aut.), *Paràbola i clam de la cosa humana*, Palma de Mallorca: Llibres Turmeda, 5-9. [Reproduït a: *Tots els poemes (1957-1981)*].
- DOLÇ, M. «El ciclo novelístico de Miquel Àngel Riera». *La Vanguardia*, 3/5/1979.
- FEUERBACH, L. «La esencia del cristianismo», Biblioteca virtual Antorcha, <http://www.antorcha.net/biblioteca_virtual/filosofia/esencia/indice.html>, [20/06/2012].
- GONZÁLEZ, A. «Notas sobre la alteridad en Feuerbach», *Pensamiento*, 193, 117-130, <<http://www.praxeologia.org/feuerbach97.html>>, [20/06/2012].
- HEGEL, M. (1973) *Lógica*. Primera parte, XCI, Zusatz - XCII, Zusatz, Madrid: Ricardo Aguilera.
- JIMÉNEZ, J. «La humanización de la Lingüística estructural: Los problemas de Lingüística general de Émile Benveniste», *Tonos*, 7, <<http://www.um.es/tonosdigital/znum7/peri/peri.htm>>, [18/06/2012].
- KRISTEVA, J. (1978 [1969]): *Sèmeiòtikè = Semiòtica*, Madrid: Fundamentos.
- LLOMPART, J. M. (1964): *La literatura moderna a les Illes Balears*, Palma de Mallorca: Editorial Moll.
- LLOMPART, J. M. (1965): «Pròleg» a Riera, M. À. (aut.), *Poemes a Nai*, Palma de Mallorca: Daedalus, 5-11. [Reproduït a: *Tots els poemes (1957-1981)*].
- LLORCA, V. (1990): «La insularidad de Miquel Àngel Riera», *El Día 16 de Baleares*.
- LLORCA, V. (1995): *Salvar-se en la paraula. La novel·lística de Miquel Àngel Riera*, Barcelona: Edicions 62.
- MAINGUENEAU, D. (1996): «El ethos y la voz de lo escrito», *Versión*, 6, 78-92.
- MAINGUENEAU, D. (2004): «“Situación de enunciación” o “situación de comunicación”?», *Discurso*, 3, núm 5, <http://www.revista.discurso.org/articulos/Num5_Art_Maingueneau.htm>, [10/06/2012].
- MARTÍNEZ, R. D. (2007): «Elements de la teoria per una lectura del discurs experimental. Entre sistema de coneixement universal i pràctica subversiva particularista» a Pons, M. (ed.), *Textualisme i subversió: Formes i condicions de la narrativa experimental catalana (1970-1985)*, Barcelona: Universitat de les Illes Balears / Publicacions de l'Abadia de Montserrat, 381-421.
- NADAL, C. (2000): *El sistema de valors existencials, ètics i estètics en l'obra poètica completa de Miquel Àngel Riera*, Barcelona: Institut Universitari de Cultura (UPF), [Projecte de treball de recerca ECLAP].
- RIERA, M. À. (1970): «Bitllet d'urgència, abans d'encetar el llibre», *Dos pams d'home*, Palma: Cort, 5-8.

- ROSSELLÓ, P. (1980): «Pròleg» a Pàmies, J., *Cançons de la nit benigna*, Tià de Sa Real, 4. Manacor: Ajuntament de Manacor, 7.
- ROSSELLÓ, P. (1981): «La religió i l'obra de Miquel Àngel Riera», *Affar*, 1, 119-128.
- ROSSELLÓ, P. (1982): *L'escriptura de l'home. Introducció a l'obra literària de Miquel Àngel Riera*, Palma de Mallorca: Obra Cultural Balear i Universitat de Palma de Mallorca.
- ROSSELLÓ, P. (1997): «Amb la gràcia dels déus inaccessibles», *Lletra de canvi*, 40-43.
- ROSSELLÓ, P. (1999): «Alguns ressons de l'Escola Mallorquina en la poesia de Miquel Àngel Riera», *Revista de L'Alguer* 10, 199-208.
- ROSSELLÓ, P. (2002): *La meva experiència creativa i altres escrits*, Palma: Fundació Sa Nostra.
- TODOROV, T. (2005 [1984]): *Crítica de la crítica*, Barcelona: Editorial Paidós.
- TRIADÚ, J. (1979): «Miquel Àngel Riera: matèria de Mallorca», *Avui* [Reproduït a: *La claror que us don...* Palma de Mallorca: Fundació Sa Nostra, 1996].
- VIDAL, J. (1993): «Poesia a Mallorca del 1936 al 1960», *Estudis de literatura catalana contemporània*, Barcelona: Publicacions Universitat de Barcelona, 177-209.